

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

GAIA: ERABAKI-PROPOSAMENA, MENDEASUN EGOERAN DAUDEN HELDU DESGAITUEN UNITATEA LEKUALDATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO MUNDAKAKO UDALERRIAN.

Gure inguruan koronabirusak (COVID-19) kutsatutako kasuak –koronabirus-19 bidezko gaixotasun infektiboa– agertu dira eta, aurreikuspenen arabera, birus horren eragina zabaldu egingo da. Hori dela eta, kontuan hartuta erakunde honen adinekoen arloko, arlo soziosanitarioko, desgaitasuna duten pertsonen arloko eta adinekoen arloko zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileen zaurgarritasun egoera berezia, erabiltzaile horiek behar bezala zaintzeko eta haien osasunaren babesarako oinarrizko eskubidea bermatzeko, administrazio erantzuleek emandako aparteko neurriak hartu behar dira gaixotasun horren hedapena prebenitzeko eta, ahal den neurrian, baretzeko. Gauza bera egin behar da erakundeko langileen kasuan.

Neurri horiek guztiak ezarri dira Birjinetxe laguntza-zentroan, osasunerako oinarrizko eskubidea bermatzeko; neurriok alarma eta larrialdi sanitarioak direla-eta hurrenez hurren gobernu zentralak eta euskal gobernuak eginiko deklarazioen babesean eman dira. **Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak –zeinaren bidez alarma-egoera deklaratzeko baita COVID-19k sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko–** neurri batzuk ezartzen ditu herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta osasun-sistema publikoa indartzeko.

Gainera, deklarazio biak behin eta berriro inplementatu dira zuzen betetzen direla bermatzen duten garapen-arau batzuen bitartez.

Illo horretatik, eta gehiegi ez luzatu gabe, **apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoa –Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa–** aipatu behar da; izan ere, lege horrek ahalmena ematen die osasun-arloko agintariei, batetik, abiaraz ditzaten prebentzio-ekintzak eta neurri egokiak, kontrolatzeko hala eriak nola haiekin kontaktuan dauden edo egon diren pertsonak eta gertuko ingurumena, bai eta transmisio-arriskurik egonez gero beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartzeko ere. **Martxoaren 19ko SND/265/2020 Agindua, zeinaren bidez adinekoen egoitzei eta zentro soziosanitarioei buruzko neurriak hartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz (2020ko martxoaren 21eko EAO, 78. zk.). Eta, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan (zeinaren bidez egoitza izaerako gizarte-zerbitzuen arloan antolaketa-neurri osagarriak eta informazioa emateko neurriak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren kudeaketa dela eta),** ezartzen da agintaritza eskudunari ematen zaiola ahalmena esku hartzeko, kontuan hartuta egoitza-zentro edo lurralde bakoitzaren egoera epidemikoa eta asistentziala, betiere beharrezkotasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioen arabera; ahalmen hori baliatuta, osasun-arrazoiak direla eta, agindua eman dezake egoitza bateko egoiliarrek lekualdatzeko eta beste lurralde batera eramateko, berdin diolarik egoitza publikoa do probatua den.



Martxoaren 23ko Aginduan bertan, bere zazpigarrenaren ebazpenean, adierazten du autonomia-erkidego bakoitzeko agintaritza eskudunei dagokiela haren garapena eta exekuzioa egitea. Hori dela eta, kontuan hartuta gizarte-zerbitzuen arloko euskal eskumen-esparrua kontuan hartuta eta, zehatzago, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2018 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua, lurralde historikoetako foru aldundiei dagokie zentrozen funtzionamendu zuzenerako eta erabiltzaileek zein langileen osasuna bermatzeko instrukzioak ematea; gainera, kontuan hartuta gaur egungo inguruabarrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko osasun-agintaritzarekiko koordinazio eta komunikazio estuan eman behar dira instrukzioak.

Jarduketok, kontuan hartuta gaur egungo inguruabarrak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekiko koordinazio eta komunikazio estuan egingo dira.

Hori horrela, araudi hori oinarri, orain esan behar dugu aparteko arrazoiak sortu direla erabakitzeke Birjinetxe laguntza-zentroko Mendetasun Egoeran dauden Heldu Desgaituen Unitatea eta hari atxikitako langileak presaz eta ezinbestez aldatu behar direla lekuz, Mundakako udal-mugartean dagoen gune batera. Eta, modu berean, Gizarte Ekintza Sailak ere agindua eman du erabiltzaileak beste laguntza-zentro batzuetara eramateko, erabiltzaileen berezitasunak aintzat hartuta.

Azken helburua da Birjinetxe laguntza-zentroa egokitzea COVID-19ak arin edo modu moderatuan jotako gaixoak hartzeko. Gaur egungo egoerak behartzen gaitu Osasun Sailarekin batera jardutera Bizkaiko egoitza-zentroetan dauden adinekoen bizimodua ahalik eta ondoen zaintzeko eta, era berean, bermatzeko osasun-sistema ez dela kaltetzen.

Egiteko honen arrazoi dira epidemiaren hedapena dela-eta jasaten ari garen zailtasunak; zailtasun eta inguruabar horiek behartzen gaituzte Osasun Sailarekin batera jardutera konponbideen bila, eta horrek esfortzu bat gehitzen die administrazio erantzuleei.

Kokalekuaren baldintza bereziak eta langileak lekualdatzeko prozeduraren ezaugarriak ezartzeko, presazko bidea erabiliko da; bide hori, bereziki, alarma eta larrialdi sanitarioen deklarazioak artikulatzen dituzten lege-xedapenetan jasotzen da, baita goian adierazitako garapen-arauetan ere. Baldintza horiek eranskinean jasotzen dira, eta adierazten da zer langile dauden eraginda eta zein diren langile horien betekizunak.

Aurtengo martxoaren 25ean izandako bileran jakinarazi zitzaion gai hau ordezkaritza sozialari, GUFEn Lan Segurtasun eta Osasunaren Aurrebatzordean; bilera telematikoki egin zen.

Adierazitakoa oinarri eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernu Batzordeari dagokio gai honen ardura.



Aurreko guztia kontuan hartuta, idazki hau sinatzen duenak honako proposamen hau aurkezten dio Gobernu Batzordeari, onar dezan

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Presaz lekualdatzea Mendetasun Egoeran dauden Heldu Desgaituen Unitatea, gaur egun Birjinetxe laguntza-zentroan dagoena, eta Biotz Sakratu laguntza-zentrorako eramatea (Sarrua kalea, 5, Mundakako udal-mugartea).

Bigarrena.- Ondoren adierazten diren pertsonak atxikitzea Biotz Sakratu laguntza-zentro berriari. Lanpostuen baldintzak eta betekizunak egokitu egin ahal izango dira, baina ez dira gutxituko kontzeptu guztiengatik orain arte jasotako ordainsariak. Ikusi eranskina.

Hirugarrena.- Interesdunei jakinaraztea hala erabaki hau nola haren aurreko txostena, zeina arrazoibide gisa gehitzen zaion erabakiari, eta adieraztea ezen, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, demanda aurkez dezaketela beronen kontra, lan-arloko epaitegian, jakinarazpena jaso eta hurrengo bi hilabeteetan. Horrez gainera, egokitzen jotzen duten beste edozein ekintza erabili ahal izango dute.

Laugarrena.- Gerente andreaki ahalmena ematea erabaki hau behar bezala betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan eta, bereziki, zentroko karteldegia eta lanaldiak ezartzeko direnak; halaber beste edozein neurri har dezake bere erantzukizunen erabileran, hala behar bada gaixotasunaren bilakaeraren ondorioz.

Bosgarrena.- Erabaki hau Gizarte Ekintza Saileko Erregistroari eta Lan eta Justizia Saileko lan-agintaritzari jakinaraztea, lan-zentro berri bat dagoela jasota gera dadin.

Seigarrena.- Dibisio eta departamentuetako buruei, Birjinetxe laguntza-zentrori eta Erakundeko ordezkari sozialari ematea erabakiaren berri.

Zazpigarrena.- Erabaki honek aurtengo martxoaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak; hala ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFEn iragarki-taulan eta intranetean argitaratuko da.

Bilbon, 2020ko martxoaren 25ean.

GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte



ERANSKINA

NOMINA	ABIZENAK IZENA	KATEGORIA
51331	OIARBIDE RODAS ADRIAN	ERIZAINA
50329	AIESTA REMENTERIA GARBIÑE	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
52023	LAPARRA OCHOA JON	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
46012	MUÑOZ ALIJA Mª BEGOÑA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
51934	GARAY ESPILLA AITOR	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
50886	AREITIO CELAYA LEIRE	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
51510	LIGERO SANCHEZ NEREA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
46997	MORIN JARA MARIA DEL CARMEN	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
49394	LAÑA ARANBURU ARANZAZU	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
51937	CORREDERA SANCHO ERIKA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
47923	CORREA REGLERO CRISTINA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
51438	LOPEZ ARES NEREA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
50193	LASA ARRIZABALAGA ERIETE	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
51388	GARCIA ALCALDE ANDREA	GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIA
48458	SANTOS DIAZ ASCENSION	OSASUN-LAGUNTZAILEA
47184	HIDALGO BARRIONUEVO FRANCISCA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
50566	SAN JUAN SAN MIGUEL ENCARNA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
46023	LACA LUZARRAGA NEREA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
49121	VALBUENA SANCHEZ MONICA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
48576	PEREZ BARCO NOEMI	OSASUN-LAGUNTZAILEA
49117	GARAY PESQUERA Mª ARANZAZU	OSASUN-LAGUNTZAILEA
50765	FERNANDEZ MATEOS ANA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
49583	PEÑA PETEIRA AITZIBER	OSASUN-LAGUNTZAILEA
50182	ELORRIAGA AURRE AINARA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
48973	ESCRIBANO ALONSO Mª DEL PILAR	OSASUN-LAGUNTZAILEA
46444	ARNAIZ ZAMANILLO SUSANA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
52112	LEGIDO MARTIN AMAYA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
47038	BATIS GERVASIO MARIA LOURDES	OSASUN-LAGUNTZAILEA
46077	RUIZ URQUIJO Mª ARANZAZU	OSASUN-LAGUNTZAILEA
50315	MARTINEZ MARTIN INES MARIA	OSASUN-LAGUNTZAILEA
47710	ALONSO BRAVO SOLEDAD	OSASUN-LAGUNTZAILEA
48519	ARTECHE TAJADA BENILDE	OSASUN-LAGUNTZAILEA
49132	MUÑOZ EGUSKIZA USOA	OSASUN-LAGUNTZAILEA